

EHUko langileen prekarizazioari eta diskriminazioari ez! EHUrako finantziario nahikoari bai!



Beste behin ere, EHUko ikasturte hasierako ekitaldian erronkak eta erresilientzia, bikaintasuna eta beste hainbat hitz polit entzungo ditugu ordezkari instituzional batzuen ahotan. Hala ere, eta pandemiak sortutako zailtasun berriez gain, badaude egoera batzuk pandemia aurrekoak zirenak, pandemian mantendu direnak eta pandemia garaitzean mantenduko direnak, haiekin bukatzeko neurriak ez badira hartzen.

EHU barruko errealitate gordin horiek ez dira berriak, eta ez dira egunkari eta albistegien berriak ere. Hedabideetan ez zaio zabaltzen euskal gizarteari EHUn dagoen prekariedade eta diskriminazioaren berri.

Irakasle askok lanaldi partzialeko kontratuekin jarraitzen dute EHUn, kanpoan beste lan bat izan gabe, 400-700 euro hileko soldatekin bizitzen. Irakasle partzialek era sistematikoan ordaindutako baina lan zama handiagoa dute. Irakaskuntza eta tutoretza baino ez zaie ordaintzen, nahiz eta kasu gehienetan beste ezinbesteko jardunak ere burutu (formazio-ikastaroak jaso, klaseen prestakuntza, kudeaketa, ikerketa...). Praktika oker batzuk aldatzeaz gain ezinbestekoa da soldata hain baxuak ezartzen dituen 41/2008 dekretua aldatzea, eta horretan Eusko Jaurlaritzak ardura nagusia dauka.

Doktoretza aurreko ikertzaile askoren kasuan oraindik ez zaizkie ordaindu EHUK zor dizkien atzerapenak, Ikertzaileen Estatutu berriak ezarritako baldintza berriak direla eta. Ikertzaile berrien soldatak murrizak dira. Unibertsitatearen bikaintasuna behin eta berriro aipatzen digute, neurri handi batean ikerketan oinarrituta, baina ikerketa egiten hasten direnentzat lan-baldintzak prekarioak dira.

Salbuespen batzuk kenduta (hutsik dagoen lanpostu iraunkor bat okupatzen duten aldi baterako

irakasleak), **iraunkorrek ez diren irakasle eta ikertzaileei ukatu egiten zaie ikerketa seiurtekoak eskatzea**, osagarri hauek jasotzeko meritu nahikoa izan arren. Kasu askotan beren lankide iraunkorrek haiekin batera eginiko ikerketa-jardunen lanak aurkezten dituzte ebaluatua izateko, baina aldi baterakoei ukatzen zaie aukera hori. Langileen arteko diskriminazio argia da, konpon daitekeena (beste unibertsitate batzuetan, egin den bezala,) baina EHUKo Zuzendaritza taldeak ez du arazorik langileen arteko diskriminazio hau mantentzeko.

Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren (AZP) kasuan, urte luzez lanean ari diren ehun langileren lanpostuek kontsolidatu gabe jarraitzen dute. Aurrekontu ez nahikoaren arrazoi nagusia den arren, Zuzendaritzak nekez presionatzen du Eusko Jaurларitza beharrezko finantziazioa lortzeko.

Bestalde, **EHUren zerbitzu baten baino gehiagotan, langile kopuru ez nahikoekin ari da lanean**, eta kontratuak urtero berriztatzen dira, langile publikoen etorkizuneko lan-harremana eta bizi-tza nahierara moldatuz, ezinegonean.

Hala ere, urte luzetan, **Lanpostuen Zerrendako plaza gehienak ez dira LEPetan eskaini**, eta aldi baterako langileek bete dituzte, lege iruzurrean. Eta orain Zuzendaritza iragartzen eta **negoziatzen ari den enplegu eskaintzetan** ez du inolako borondaterik erakutsi eskainiko diren lanpostu horietako langileei **inolako egonkortasun akordiorik eskaintzeko, ezta** are gutxiago, **kontsolidazio proposamenik mahai gainean jarri eta negoziatzeko.**

Hauxe da EHUKo Zuzendaritza erakusten ari den arduragabekeria AZPko plantillarekiko. Hauxe ere, EHUKo sindikatu gehienak, antza, onartzeko prest daudena.

Aurrekoa gutxi ez balitz, UPV/EHUKo **Zuzendaritza 2020ko aurrekontuan izandako 3 miloiko defizita 2021ekoan "orekatzeko" prest dago, gastuak txikituz zehazteke dauden murrizketak eraginez.** Noiz eta Urkullu buru duen Eusko Jaurларitza **Euneiz unibertsitate pribatu elitistari** bide emateaz gain, **12,5 miloiko dirulaguntza zuzena luzatzeko prest dagoen une berean.** Lotsarik ez dute EAJ/PNVk eta PSEk!!

Horregatik beharrezkoa da, ikasturte hasiera honetan, EHU barruan mantentzen diren prekarietate eta diskriminazio egoera hauek eta beste batzuk salatzea eta haiekin bukatzeko exijitzea, horixe baita unibertsitate publiko bikaina erdiesteko ezinbesteko baldintza. LAB sindikatua tinko mantenduko da aldarrikapen hauetan, orain arte egin duen bezala.

EHUKo langileen prekarizazioari eta diskriminazioari ez!

EHUrako finantziazio nahikoari bai!